PIZTIA ARRARO BAT

Testua: **MON DAPORTA**

Irudiak: **ÓSCAR VILLÁN**

Itzulpena: **MANU LÓPEZ GASENI**

Kartoi gogorra. 17,5 x 22 cm. 14 orr. 9 €.

IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

Piztia arraro bat (euskara)
ISBN 978-84-7681-611-0. Kartoizko orriak.

Un bicho extraño (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-351-7.Duros

Un becho estraño (galegoa)
ISBN 978-84-96957-66-4. Duros.

Una estranya bestiola (katalana)
ISBN 978-84-16804-29-0. Cartró.

Um bicho estranho (portugesa)
ISBN 978-989-8205-16-2. Cartonados.

Buffa bestia (italiera)
ISBN 978-88-95933-58-0. Cartonati.

Begira eta begira, zokomiran,
piztia arraro bat topatu nuen,
arrautzaren itxurakoa:
Gizena goian, behean flakua.
Goiko aldean bi oin
oinen artean, isats luze estua...

"Amaierarik gabeko ipuinen" formularen bidetik datorkigun formatu txikiko liburua. Kontatzeko ipuin honetan funtsezkoak dira errima eta erritmoa, kontakizun osoan zehar errepikatzen diren egitura erritmokoetan oinarrituta. Alderdi literario zein artistikotik darion xalotasunarekin batera, liburu honek irakurle txikiekin ematen duen "jokoa" ere azpimarratu behar da, irakurtzearen funtzio ludikoa ezin hobeto erakusten baitu. Izan ere, orrialdeetan aurrera amaierara iritsita, liburuari buelta eman eta...

- **Gaia:** hasiera batean ezezaguna den animalia bati buruzko ipuin errimatua.
- **Adin egokia:** 3 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzekoak:** amaierarik gabeko ipuina; liburuari buelta emanez, ipuina berriro hasten da; testu errimatua; hondo ilunarekin kontrastean dauden ilustrazio xaloak; ilustrazioan integraturiko tipografia.

Mon Daporta

(Cambados, 1952)

Lehen Hezkuntzako irakaslea izan da. Hezitzaileak prestatzeko ikastaroak eta jarduerak antolatzen dituen Candea izeneko talde pedagogikoko kidea izan da ere. Haurrentzako liburu batzuk argitaratu ditu eta liburu monografikoak zein entziklopedia tematikoak prestatzen lagundu du.

Óscar Villán

(Ourense, 1972)

Arte ederretan lizentziaduna da, pintura espezialitatean. Haurrei zuzenduriko *Untxitxo txuria* bere lehen ilustrazio lanaz, (KALANDRAKA), 1999 urteko lehen Ilustrazio Sari Nazionala jaso zuen. Hainbat argitaletxeren eskutik argitara eman dituen hogeita hamar liburuetatik, honakoak dira euskaraz argitaratutakoak: *Kamila Zebra* eta *Piztia arraro bat* (PAMIELA-KALANDRAKA). Bestalde, eskultura eta argazki-lanak egin eta kartelak ere diseinatzen ditu. Orobat, KALANDRAKAren *Alfabetos* arte-bilduma zuzentzen du.
http://ovillan.com

www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com